

**2010EKO URRIAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia.

HILABETEA: Urria

URTEA: Bi mila eta hamar.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Malu Valles Fernandez
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Manuela Uranga Segurola

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko urriaren 1eko aktaren onespena.

2010eko urriaren 1ean, egindako ohiko batzaraldiaren aktaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak ez du akta onartu bertan legez kanpo dagoen plataformak parte hartu duelako.

Beste guztiek aktarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ, PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE, tB)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin akta onartu da.

2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA:

- Landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko behin-betiko onespina baldintzekin.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeburuak proposamenaren berri eman du:

“Gaia: landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari behin betiko onespina ematea.

AURREKARIAK

I.- Udalbatza Osoak 2010eko uztailaren 9an, legeak ezartzen duen quorumarekin ondorengo erabakia hartu zuen:

Lehenik. Aholku Batzordeak emandako gomendioa aintzakotzat hartzea.

Bigarren. Aurkeztutako alegazioak ebaztea, deuseztatuz.

Hirugarren. Landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespina ematea.

Laugarren. Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari espedienteak igortzea, txostena emateko eskatuz eta aldi berean ingurugiro inpaktuari buruzko behin betiko txostena eskatzea.”

II.- 2010eko urriaren 18ko datarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen erabaki-ziurtagiriaren berri izanda, proposatutako aldaketarekiko txostena aldekoa izanik baina baldintzarekin. Aldi berean Euskal Herriko Ur-agentziaren eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako txostenak atxikitzen dira.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari behin betiko onespena ematea, termino hauetan:

- a) *Previamente a la ejecución de cualquier obra que vaya a ubicarse en la zona de policía cauces con la que se pueda causar afección al Dominio Público Hidráulico y a sus zonas de servidumbre y policía se deberá contar con la pertinente autorización, que se deberá tramitar ante la Oficina de Cuencas Cantábricas Orientales de la Agencia Vasca del Agua –URA.*
- b) *Las determinaciones establecidas en el Régimen de Protección anexo a la Resolución de 29 de julio de 2010 deberán ser tenidas en cuenta en aquellos tramos establecidos dentro de la red peatonal vinculada con accesibilidad al territorio rural y que coinciden con el Trazado del Camino de Santiago a su paso por Beasain, mediante la mención de dicha circunstancia en el documento.*
- c) *La zona arqueológica de la estación megalítica de Murumendi, debe de recogerse como tal zona arqueológica y como Bien Cultural Calificado, y toda actuación a realizar en ésta se debe de ajustar a lo estipulado en su Régimen de Protección.*

Aldi berean, 2010eko urriaren 13an, Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpena jaso da, hain zuzen ere, 2003ko uztailaren 22ko 183/2003, Dekretuak arautzen duena, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura jarraituz. Ebazpenak dokumentuari behin betiko onespena emateko dokumentuan jaso beharrezko xehetasun batzuen berri ematen ditu.

Bigarren. Idazlan-taldeari errekerimendua egitea, erabaki honen ziurtagiria jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hilabeteko epean Testu Bateratua egiteko, 2010eko urriaren 4ko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpenean adierazitako xehetasunak jasotzen dituen.

Hirugarren. Testu Bateratu hori onartu eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen kopia bat igortzeaz gain, espediente osoa behar bezala diligentziaz bidaltzea paperean eta baita aldaketaren dokumentua informatikoki ere diligentziaz bidaltzea.

Laugarren. Gipuzkoako Foru Aldundia ere dokumentua diligentziaz bidaltzea, foru erregistroan gordetzeko.

Bosgarren. Behin betiko onespeneraren erabakia probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian argitaratzea eta onartutako xehetasunez gain ingurumenaren gaineko eraginaren Azterlana aintzakotzat hartzeari buruzko aitormena ere, Gipuzkoako Foru Aldundian argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritziz hauek azaldu dira:

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala. Arau urbanistikoak (39, 44-48, 50-51 eta 55 artikulak). Behin betiko onespenera.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeburuak proposamenaren berri eman du:

“**Gaia: Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 3. dokumentuaren (39, 44-48, 50-51 eta 55 artikulak) aldaketa. Behin betiko onespenera.**

AURREKARIAK

I.- Udalbatza Osoak 2010eko uztailaren 9an, legeak ezartzen duen quorumarekin ondorengo erabakia hartu zuen:

Lehenik. Aholku Batzordeak emandako gomendioa aintzakotzat hartzea.

Bigarren. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 3. dokumentuaren (39, 44-48, 50-51 eta 55 artikulak) aldaketari behin-behineko onspenera ematea.

Hirugarren. Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari espedientea igortzea, txostena emateko eskatuz.”

II.- 2010eko urriaren 18ko datarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen erabaki-ziurtagiriaren berri izan da, proposatutako aldaketarekiko txostena aldekoa izanik. Aldi berean, Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak emandako txostenak atxikitzen dira. Azken kasu honetan adierazten bada ere aldaketak, babestutako etxebizitza arloko eskumenari buruz ezarritako xedapena guztiak betetzen dituela, Kulturako txostenak betebeharrezko xehetasun batzuk ezartzen ditu. Hauek, hain zuzen ere:

- 1.1. *El Art. 23 de la Ley 7/90 del Patrimonio Cultural Vasco establece que el uso a que se destinen los bienes culturales calificados y los inventariados deberá garantizar su conservación.*

A ese respecto:

La generación de nuevas viviendas sobre los inmuebles que disponen de declaración monumental que se mencionan en los apartados siguientes: 1,2, 1,3 y 1,4, deberá ser compatible con los valores culturales – tipológicos, formales y estructurales- de esos inmuebles. La apertura de buhardas sobre las cubiertas de los bienes culturales que disponen de declaración monumental, inmuebles que se recogen en los apartados siguientes mencionados, es contraria al régimen de protección establecido para esos bienes.

- 1.2. *Mediante Resolución de 29 de julio de 2010 del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Departes se incoa y somete a información pública y audiencia de los interesados el expediente para la declaración de Bien Cultural calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, del Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma. El Art. 28,1 de la Ley 7/90 del patrimonio Cultural Vasco establece que los bienes inmuebles calificados deben ser conservados con sujeción al régimen de protección y a los instrumentos de planeamiento urbanístico que deberán ajustarse a aquel. Por lo tanto, para dichos elementos afectos al camino de Santiago, las intervenciones constructivas posibles deberán remitirse en todo caso a las definidas en el Régimen de Protección establecido en la declaración.*

- 1.3. *La Fábrica Manufacturas Olan está inscrita en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco con la categoría de Monumento mediante Orden de 20 de mayo de 2003 (BOPV, nº 118 de 17 de junio de 2003).*

La Ley 7/1990 del Patrimonio Cultural Vasco establece para los Bienes Inventariados la obligación de su conservación y puesta en valor, por lo que las intervenciones que en ellos se realicen deberán enmarcarse en los términos de la restauración conservadora.

- 1.4. *El Caserio Letamendi tiene abierto expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, mediante Resolución de 25 de noviembre de 2005, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Departes (BOPV nº 243 de 23 de diciembre de 2005). Por ello, y hasta la conclusión del expediente, las intervenciones que se realicen en el elemento deberán enmarcarse en los términos de la restauración conservadora, al igual que en el caso anterior.*

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 3. dokumentuaren (39, 44-48, 50-51 eta 55 artikulak) aldaketari behin betiko onespena ematea, aplikatzeko garaian kontutan izanda aipatu diren Kultura Departamentuko xehetasunak.

Bigarren. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen kopia bat igortzeaz gain, espediente osoa behar bezala diligentziatuta ere bidaltzea paperean eta behin betiko onespena duen dokumentua informatikoki ere diligentziatuta bidaltzea.

Hirugarren. Gipuzkoako Foru Aldundia ere dokumentua diligentziatuta bidaltzea, foru erregistroan gordetzeko.

Laugarren. Behin betiko onespeneren erabakia probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian argitaratzea eta onartutako xehetasunez gain ingurumenaren gaineko eraginaren Azterlana aintzakotzat hartzeari buruzko aitormena ere, Gipuzkoako Foru Aldundian argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, aho batez onartu da proposamena.

3.- ERAIKINAK ZENBATZEA. Eraikin berriak zenbatzea.

Hirigintza Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“1.- Beasain Lantzen, S.A., 4. Arean egiten ari den eraikinari zenbaki hauek emango zaizkio: JOAN XXIII, 4-6.

2.- Ausartondo, S.L., Martina Maiz, 5ean egiten ari den eraikinari (lehen Leku-Alai zena) zenbaki hauek emango zaizkio: MARTINA MAIZ, 5-7.

3.- Gudugarreta auzoan eta zehazki 26. Arean 3. unitate egikaritzean egin diren pabiloiei zenbaki hauek emango zaizkie: GUDUGARRETA AUZOA, 16A. Pabiloia 1etik 12raino zenbatuko dira, Beasainetik hasita Ormaiztegiarantz.

4.- 48. Arean Eusko Jaurlaritza egiten ari diren sozialak diren etxebizitza-eraikinari, zenbaki hauek emango zaizkio: MARIARATS KALEA, 13-15-17-19.

5.- 31. Arian, VISESA eta GOI-ETXE egin behar dituzten eraikinei, zenbaki hauek emango zaizkie: SENPERE KALEA, 12-14-16-18-20-22-24-26-28.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, aho batez onartu da proposamena.

4.- 2010ERA KO SOLDATEN MURRIZKETA.

Alkateak gobernazio batzordeak hartutako proposamenaren berri eman du:

“BEASAINGO UDALEKO OSOKO BILERAREN AKORDIO PROPOSAMENA MAIATZAREN 20KO 8/2010 ERREGE LEGE DEKRETUTIK SORTUTAKO DEFIZITA MURRIZTEKO NEURRIAK APLIKATZEARI BURUZKOA

AZALPEN-ZATIA

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak zenbait neurri hartzen ditu defizit publikoa murrizteko, bereziki, Europar Batasunak abiarazitakoak bere Estatu kideak eta euroa defendatzeko, zenbait herrialdek defizitak zuzendu eta zorrak itzultzeko duten gaitasunei buruzko zalantzei erantzuteko. Horretarako, bada, aipatutako Errege Lege Dekretuan bildutako neurriak ezarri dira. Neurriotako helburuetako bat da soldata-masaren ehuneko bost murriztea, urteko.

Zehazki, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak adierazten du, nazioarteko krisi finantzarioan jatorria duen krisi ekonomikoaren indarrak ezaugarritutako egoera ekonomiko batean (hazkundean eta enpleguan eragina duena), premiazkoa dela hainbat herri-administrazioetako langileen gastuari eusteko neurriak hartzea. Ondoren adierazten duenez, neurri horren helburua da "soldata masa ehuneko bost murriztea, urteko", eta ezarri duenaren arabera, "administrazio guztiek aplikatu beharko dute; gisa horretan, autonomia erkidegoek eta udalbatzek dezente aurreztuko dute, langile kopurua handia baita oso".

EUDElen Batzorde Agintariak, 2010eko maiatzaren 27an, langile publikoen ordainsariak murrizteari dagokionez, adostu zuen jardura betegina eta koordinatua proposatu behar zela gainerako instituzioekin -Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza-, Errege Lege Dekretu honen helmena eta eragina zehazteko. Akordio hori betetzeko, eta instituzio bakoitzak dituen alde eta

berezitasunei kalterik egin gabe, koordinazio hori lan-ildo nagusitzat jo da. Halaber, erakunde guztiek iritzitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruaren berezitasunak abagunea ematen digu bete beharreko Errege Lege Dekretu hau zehatz-mehatz ez aplikatzeko.

Hori guztia betetzeko, jarraian garatzen den Akordioak soldata-masaren %5 murriztea du helburu, urteko. Murrizketa hori langileen ordainsarietatik lortuko da, besteak beste, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legearen 22. artikuluko hainbat atal aldatzen dituen maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren 1.2. eta 1.3. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki. Artikuluok oinarritzakoak dira, 8/2010 Errege Lege Dekretuko Amaierako Bigarren Xedapenak beren-beregi jasotakoaren arabera.

Aipatutakoari kalterik egin gabe, eta neurri hau zehatz-mehatz aplikatzeari dagokionez, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak, gainerako euskal erakundeekin egin den bezalaxe, ordainsarien murrizketa pixkanaka-pixkanaka egingo dela. Hala, bada, ordainsari altuenak ehuneko altuago batekin hasiko dira, eta, horretarako, pixkanakako murrizketa jasotzen duen ordainketa taula berria ezarriko da, gainerako instituzioetan bezala. Pixkanakako murrizketa langileei aplikatuko zaie, UDALHITZ 2008-2009 Euskadiko Tokiko Erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa arautzen duen irizpideari jarraiki. Izan ere, horren arabera, langileen eta funtzionarioen lan-baldintzak berdinak dira. Hala, II. tituluko 64. artikuluan eta hurrengoan berariaz jasotzen denez, langileek funtzionarioek dituzten ordainketa kontzeptu berbereko ordainketa-egitura antzekoa izango dute. Hori guztiori, betiere, kolektibo biei pixkanakako murrizketa berdinak aplikatuz gero.

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretutik eratorritako ezohiko neurri hauen ondorioz, BEASAINGO Udalak berau ezartzeko beharrezkoak diren aldaketak egin behar ditu, hain zuzen ere, Akordio honen edukian zehazten direnak. Zentzu horretan, saihestezina da, 8/2010 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasota dagoen bezala, 2010eko ekainaren 1etik aurrera, UDALHITZ 2008-2010 Euskadiko Toki Erakundeetako langileen baldintzak arautzen dituen akordioa zati batean baliogabetzea, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua eta akordio hau ezartzeko beharrezkoak diren terminoetan, eta, bereziki, eduki ekonomikoko neurriak.

EUDELeK, 2010eko ekainaren 22an eta gero, baita, ekainaren 30ean ere, UDALHITZen Interpretazio, Kontziliazio eta Neurketaren Batzorde Paritarioa deitu zuela, sindikatu erakundeei Errege Lege Dekretuak gai honetan eta akordio honetan jasotako neurri eta irizpideei buruz informatu, eta, hala badagokio, adosteko, esaterako, Akordioa adierazitako terminoetan zati batean baliogabetzea. Batzordean ez zen adostasunik egon.

Ekintza hau bera Beasaingo Udalak egin zuen, 2010eko irailaren 7an, Akordioa lortzeko aukerarik gabe.

Horren guztiaren ondorioz, ondokoa proposatzen da:

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Beasaingo Udalak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuan eta aplikatzekoa den araudi autonomikoan ezarritakoa betetzeko, betiere, eta, oro har, 2010erako bere Aurrekontuetako I. kapituluaren murrizketa ezartzeko.

Murrizketa hori soldata-masaren %5ekoa izango da urteari dagokionez. Ondorioz, eta kontuan hartuta neurriak 2010eko ekainaren 1etik aurrera izango dituela ondorioak, murrizketa %2,86koa izango da 2010eko ekainetik abendura arteko eperako; portzentaje hori lortzeko, urte osorako %5aren hamalau zatitik zortzi aplikatu dira.

BIGARRENA.- Arestian azaldutakoa aplikatuz gero, 2010eko ekainaren 1etik aurrera sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileek eskuratu beharreko oinarritzko ordainsariak maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuko 1.2. eta 1.3. artikuluetan dauden tauletan jasotakoak izango dira. Izan ere, lege horretako artikuluek Estatuko Aurrekontu Nagusien abenduko 23ko 26/2009 Legeko 22. artikuluko BIGARREN eta BOSGARREN atalak aldatzen dituzte.

HIRUGARRENA.- Murrizketa neurriak Udalean dauden ordainketa maila ezberdinen artean progresibitate irizpideekin aplikatzeko bermatu ahal izateko, enplegatu publikoek urteko murrizketa izango dute, ondoko taulak zehazten dituen ehunekoetan:

UDALHITZeko MAILAK BAINO ORDAINSARI ALTUAGOAK	2010eko ORDAINSARIA	%eko murrizketa, aplikazio epean	%eko murrizketa urteari dagokionez
	70.000,00 €	2,86%	5,01%
	65.000,00 €	2,78%	4,87%

UDALHITZ MAILAK	2010eko ORDAINSARIA	%eko murrizketa aplikazio epean	%eko murrizketa urteari dagokionez
30	61.257,34 €	2,72%	4,76%
29	59.547,58 €	2,68%	4,69%
28	57.837,42 €	2,62%	4,59%

27	56.127,26 €	2,55%	4,46%
26	54.418,32 €	2,48%	4,34%
25	52.707,46 €	2,38%	4,17%
24	50.997,43 €	2,25%	3,94%
23	49.287,01 €	2,20%	3,85%
22	47.577,93 €	2,15%	3,76%
21	45.867,22 €	2,10%	3,68%
20	44.157,61 €	2,05%	3,59%
19	42.447,44 €	1,97%	3,45%
18	40.737,54 €	1,91%	3,34%
17	39.027,25 €	1,86%	3,26%
16	37.317,22 €	1,82%	3,19%
15	35.607,20 €	1,81%	3,17%
14	33.897,16 €	1,73%	3,03%
13	32.187,26 €	1,65%	2,89%
12	30.703,14 €	1,55%	2,71%
11	29.219,30 €	1,05%	1,84%
10	27.735,30 €	0,95%	1,66%
9	26.251,44 €	0,78%	1,37%
8	24.870,67 €	0,68%	1,19%
7	23.490,18 €	0,56%	0,98%
6	22.129,69 €	0,56%	0,98%
5	20.769,20 €	0,56%	0,98%

Irizpide hori lehentasunezkoa izango da urte honetako abenduko aparteko ordainsarian aplikatzea. Ondore horietarako, aparteko ordainsariari dagokion kopurua aplikatuko zaio, harik eta aplikazio epeari dagokion minorizazioa guztiz osatu arte. Minorizazio hori aurreko taularen minorizazio ehunekoen arabera kalkulatu da, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuko 1.2. eta 1.3. artikulua aplikatuz eratorritakoak murriztu ondoren.

LAUGARRENA.- Aldi baterako langileei eta asimilatutako langileei antzeko ordainsaria duen langile publikoari aplikatu zaion ehuneko bera murriztuko zaie.

BOSGARRENA.- 2010eko ekainaren 1etik aurreragoko ondoretarako, 2008ko irailaren 22an sinatu eta Beasaingo Udal honetan 2008ko urriaren 30ean onartutako UDALHITZ 2008-2010 Euskadiko Toki Erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa zati batean baliogabetzea, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren terminoetan, eta, bereziki, eduki ekonomikoko neurriak aplikatzeko.

SEIGARRENA.- Indarrean dagoen araudiaren arabera, maiatzaren 20ko 8/2010 EDtik eratorritako langileen kostuak murrizteko neurriak aplikatzetik lortutako baliabideek erakundearen egoera ekonomiko-finantzarioa hobetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea izango dute helburu.

ZAZPIGARRENA.- Alkateari gaitasuna emango zaio bere kargutik akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko.

ZORTZIGARRENA.- Akordio honen berri ematea EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari.

Langileen ordezkariak galdetzen dute ea Akordio hau baita ere aplikatuko ote zaien politikoei, liberatuta daudenen ordainsariei eta liberatuta ez daudenen gainontzeko ordainsariei; Plazaola jaunak erantzuten du baietz, guztiei aplikatuko zaiela.

Politikoen ordainsarietan, urteko ordainsari gordinari akordio honen taulan azaltzen den portzentaia aplikatuko zaie eta kantitate hori murriztuko zaie.

Duarte jaunak neurri hauen norainokoengatik galdetzen du, hau da, 2011. urtean ere aplikatuko ote diren, Plazaola jaunak erantzuten du momentuz 2010. urterako direla, beraz 2011. urteko urtarrileko kopuruak eta 2010. urteko urtarrilekoak berdinak izango direla.

Amaitzeko, Plazaola jaunak esaten du Gizarte Segurantzako Oinarriak 2010. urteko maiatzekoak baino txikiagoak ezin izango direla izan.”

Alkateak, zinegotzien asignazioari buruzko murrizketa proposamena aurkeztu du, hau da:

“MAIATZAREN 20KO 8/2010 ERREGE DEKRETU LEGEAREN ONDORIOZ DEFIZITA MURRIZTEKO NEURRIAK EZARTZEA.

Proposamen hori EUDELen Batzorde Eragileak onartu zuen 2010eko ekainaren 17an. Maiatzaren 20ko 8/2010 EDLren ondorioz ezar daitezkeen neurriak arautzen ditu, eta, zehazki, administrazio publikoetako langileei soldata-murrizketa nola ezarriko zaien. Maiatzaren 20ko 8/2010 EDLk 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

Halaber, jakinarazi zaie EUDELen aipatu Batzorde Eragilean, alkateen eta zinegotzien soldatak murriztearen inguruan, honako gomendio hau onartu zela:

- Alkateen soldata: oro har, bere udaleko langileari ezarriko zaion murrizketa

handienari dagokion portzentajearekiko portzentaje-puntu bat gehiago murriztea proposatzen da.

- Zinegotzien soldata: oro har, administrazio publikoko langileari ezarritako portzentajea murriztea proposatzen da, kontuan hartuta bere soldata zein ordainsari-mailari dagokion.

- Talde politikoen asignazioak:

1.- Udal taldeek bere eginkizunak burutzeko gastuak hornitzeko: zinegotzi bakoitzeko murrizten da eta EZ udal taldeekiko.

2.- Udalkide bakoitzaren lana eta dedikaziogatik:

Murrizten da: zinegotzi kontzeptuagatik, zinegotzi ordezkaritza duena eta udal erakundeetako lehendakariak (Musika Eskola, KUE eta Euskaltegi), Batzorde Lehendakariak eta Gobernu Batzordeko kideak

Kontzeptu hauengatik urteko murrizketa %5a izango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren proposamenarekiko iritziz hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP), proposamenaren alde azaldu da.

Begoña Lasa andreak (EB): “Nosotras vamos a votar en contra, como también lo hicimos anteriormente, ya que pensamos que la sociedad debe de luchar por los derechos de todos los trabajadores sin excepción, pero en el caso concreto de los funcionarios creo que deben de sentirse un poco privilegiados porque ellos son los únicos que siempre van a seguir manteniendo su puesto de trabajo y su salario, en tanto que el resto no. De todas formas estamos en contra.”

ALKARBIDEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros dimos el visto bueno en la comisión y lo mantenemos, pero quiero hacer dos puntualizaciones. Con respecto a la reducción que se nos aplica a los concejales decir que, a los grupos que no estamos en el equipo de gobierno se nos va a aplicar la reducción del 5%, que viene a ser lo que se le va a aplicar a la Alcaldía y el tema del teniente de alcalde, no sabemos cómo ha quedado, ya que no es en concepto de concejal ni de alcalde. No sabemos si se le va a aplicar el mismo porcentaje. También pediríamos que aquellos que tienen

tarjeta VISA para gastos de representación, sean comedidos en el gasto. No obstante, nosotros apoyamos la propuesta que se presenta.”

Alkate jaunak (EAJ): “Al concejal con carácter general se le aplica la reducción del porcentaje aplicado al empleado público a cuyo nivel retributivo está referido su sueldo. En esa tabla aparecen los niveles retributivos. La VISA se utiliza muy poco.”

Aldez aurretik hitza eskatuta eta Alkate jaunak eman ondoren, Lander Martin, langileen ordezkariak ondorengo testua irakurri du:

“MURRIZKETARIK EZ!!!

Udal Batza honetan aurrera eraman nahi den soldata murrizketaren aplikazioaren aurrean Beasaingo Udaleko eta bere patronatu ezberdinetako langileek honako hau adierazi nahi dugu:

- Ez dugula inolako murrizketarik onartuko ez soldatetan eta ez zerbitzuetan.
- Soldata murrizketa hau inposaketa hutsa dela eta zerbitzu publikoei eta negozioazio kolektiboari eginiko eraso garbia dela, ez baita ahaztu behar gure konbenioa den UDALHITZ indarrean daukagula 2010eko abenduaren 31a arte eta beraz soldatak azken negozioazio kolektiboan erabaki eta sinatu zela.
- Udal honek, Alkate J.ak behin eta berriz adierazi duenez, defizita kontrolatua badauka, ez daukala inolako arrazoirik langileei horrelako murrizketa bat ezartzeko, dekretuaren helburua instituzioetako defizita murriztea bait da.
- Murrizketa aplikatzeko arrazoia legez behartuta egotea bada, aztertu dezala juridikoki Madrilgo dekretuaren kontra jotzea.
- Iraganean ere Madrilén hartu zirela erabakiak, Soldata masaren %1arena kasu, baina hori langileen aldekoa zenez ez zela aplikatu.
- Dekretu honen harira ateratzen den udal erabakia sindikatuok errekurritu egingo dugula epaitegietan.

Era berean, gaur hemen bilduta zaudeten alderdi politiko ezberdinetako zinegotziei, bozketaren aurretik zuen botoa arrazoitzea eskatzen dizuegu, hemen bildu garen langileei murrizketa proposamen honen aurrean duzuen jarrera azalduz.”

Langileek Korporazioari leporatu die urtero Errexiora egiten duten bidaia esanez horrek gastua suposatzen duela eta ea zergatik hori ez den bertan behera uzten.

Andoni Antxia jaunak adierazi du beraiek ere erabakia honen aurka daudela, beste arloetako erruak guk ordaindu behar ditugulako.

Neurriak alde ahulagoengan aplikatzen dira eta ondorengo galderak egin ditu: zergatik aplikatzen diren neurri hauek, Beasaingo Udalak defizitik ez badu, murrizketa honek zenbait diru suposatzen duen eta diru hori zertarako erabili behar den.

Alkate jaunak: “Langileei erantzunez esango dut, ez hemen eta ezta ere EUDEL mailan ez dela langileekin akordiorik lortu eta horren ondorioz, inposizio bat dela, hain zuzen ere, lege honek udal guztiei inposatzen digutena. Hernanikoei, Beasaingoei etab. Alde horretatik aitortzen dut UDALITZ hitzarmena urratu egin dela. Beste batetik adierazi nahi dut erabaki hau dela 2010eko abenduaren 31rarte.

Langileei eskerrak eman nahi dizkiet urte guztian zehar eta murrizketa-prozesu hau medio dela, beraien elkarlanagatik, ordezkapenak gutxitu egin direlako eta beraien ekarpena garrantzitsua delako.

Neurri honek zenbait suposatuko duen kuantifikatzea zaila da, baina murrizketa hauekin eta beste aportazio txiki batzuekin, 90.000 € inguru gutxituko dugu lehengo kapitulua.

Aplikazio hau derrigorrezkoa da. Guk defizita badaukagu, kontrolatutakoa baina horrek ez du esan nahi ez dugunik. Askotan horrelako gauzak bete behar ditugu nahiz eta gure gustukoak ez izan. Kasu honetan aplikazioa derrigorrezkoa da eta horren ondorioz ezinbestekoa.

Errioxako bidaiari buruz esan, duela urte asko egiten dugun irteera dela. Zinegotziok familiakoekin joaten gara eta elkarrekin egotea da helburu. Gure ustetan hori egitea zilegi da eta mantendu egingo dugu gure elkarbizitza hobetzen duelako.”

Langile batek adierazi du metal arlokoei soldata igo egin diela eta nahiz eta krisia egon beste sektore batzuetan ez dela administrazio publikoetako langileekin bezala jokatu. Golpe psikologikoa dela dio.

Alkate jaunak (EAJ): “Arrazoiak aipatutakoak dira.”

Jarraian langileak ondorengoa ohikatu dute: ¡EZ EZ EZ LAPURRETARIK EZ. UDALHITZ BAI!.

Gaia behar adina eztabaidatuta, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ, PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE, PP)

Aurkako botoak: 2 (EB)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

5.- ERAKUNDEEN ARTEKO AKORDIOA. EUDELeK bidalitako eta Alkateak aurkeztu duen Memoriaren eguna ospatzeko erakundeen arteko akordioa.

Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, hiru Foru Aldundietako Batzar Nagusiek eta EUDELeK adostutako testua Alkateak aurkeztu du, baina alde aurretik ondorengoa esan du: hil honen 10ean Memoria eguna ospatzea erabaki da. Beraz, egun horretan bertan, Beasainen eguerdiko 12,00etan biribulgunean lore-sorta bat jarriko da oroigarri baten aurrean eta adierazpen hau irakurriko da:

“Gaur, herri honen historian lehen aldiz, garrantzi handiko jardunaldi bat ospatzen dugu. Euskal erakundeek akordio sendo baten bidez, azaroaren 10a MEMORIAREN EGUNA da eta izango da Euskadin. Eta honelako egun batean, honako hau aldarrikatu nahi dugu:

1.- Euskal hiritarrok eskubidea dugu elkarrekin bakean eta askatasunean bizitzeko, totalitarismoaren, indarkeriaren eta bazterketaren mehatxurik gabe. Terrorismoa amaitzea eta bakea erdiestea dira euskal gizartearen eta euskal gizartea ordezkatzeko erakundeek helburu nagusiak.

2.- Euskaldunok eta euskal erakundeek terrorismoaren biktimen memoria etorkizuneko erreferente bihurtu arteko onik ez daukagu, hain zuzen ere bakea, askatasuna, tolerantzia, justizia eta aniztasunarekiko errespetua ardatz izango dituen etorkizuneko erreferentia.

3.- Memoria ez da bakarrik terrorismoaren indarkeria jasan behar izan duten pertsonen oinarritzeko eskubidea. Biktimaren ikuspegiaren bidez, denok konpartitzen dugun gertaeren benetako kontakizun bat eraikitzeko argumentu bat ere bada. Kontakizun horretan, indarkeria eta indarkeriaren justifikazio guztiak behin betirako alboratuta geratuko dira eta indarkeriaren biktimak betirako aintzatetsiko dira, gizalegezko adiskidetasun batean.

4.- Terrorismoak ezinezkoak diren aitzakiak eta justifikazioak ipintzen dituen tokian memoriak izenak eta datak ipintzen ditu. Memoriak sufrimendu

bidegabearen inguruko akta idazten du. Memoriak, azken baten, hiritarrok babestu egiten gaitu; gertatutakoa derrigorrez edo interesengatik ez ahaztea laguntzen digu.

5.- Gaur, terrorismoaren biktima guztiak ditugu gogoan, salbuespenik gabe. ETAk, hau da, euskaldunon arteko elkarbizitza oraindik mehatxatzen jarraitzen duen talde terrorista bakarrak eragindako beldurraren biktimak; baina, baita ere, beste talde terrorista batzuek eragindako biktimak. Talde horiek, nahiz eta gaur egun iraganekoak izan, sufrimendua eragin zuten eta, horregatik, biktima horiek ere aintzatespen eta aitormen berak merezi dituzte.

6.- Memoria gordetzea da gure artean ez daudenei eman diezaiekegun zerbitzurik onena, eta baita terrorismoaren biktima guztien sufrimenduagatik ere. Kontuan hartuz guztiak, oraina, baina batez ere, etorkizuna: biktima guztien oroimena gordetzen badugu, bakean eta askatasunean oinarritutako etorkizuna izango dugu, elkarbizitza zintzoa izan dezagun.

7.- Azaroaren 10ean, guztion ondarearen zati den eguna da. Azaroak 10 guztiona den urtemuga da. Gaurtik aurrera, efemeride honek gertatutakoa gogorazaziko digu, inoiz gehiago gerta ez dadin. Biktimen memoria bizirik izanik, guztiontzat hobe izango den etorkizunean fedea eta itxaropena izan ditzagula.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Begoña Lasa andreak (EB): “Estamos de acuerdo, pero falta el reconocimiento a las víctimas del terrorismo.”

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia jaunak: Guk zorrotasuna eskatzen dugu. Beasainen ere gerra zibileko fosak daude. Oraindik ilunean daude eta kalera atera beharko dira. Biktimak bi aldeetan daude, ez bakarrik alderdi batean. Memoria eguna ez dela alzheimer eguna bihurtu.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16(EAJ, PSE-EE/PSOE; ALKARBIDE; EB, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, adierazpena aho batez onartu da.

6.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2010eko irailaren 28tik urriaren 25erarte Alkateak emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2010eko irailaren 28tik urriaren 25erarte Alkateak emandako Ebazpenak.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

KIROLDEGIKO ORDUTEGIA ZUBI EGUNETAN

Josi Insausti jaunak (ALKARBIDE) adierazi du azkena izan zen zubian, Kiroldegiaren ordutegia murriztu egin zela, 9,00etatik 13,00etara ireki zelako bakarrik eta beraien ustetan kontraesana dago larunbatetan gaueko zortzietan ixten delako eta aldiz zubietan eguerdiko ordubaketan. Ordutegia aztertzeko eta larunbatetako izateko eskatzen du, jende askok aisialdian kirola egiten duelako eta itxita egoteak ez dio inolako mesederik egiten instalazioari, kontutan izanda egin den inbertsioa.

PPko ZINEGOTZIAREN ASPERTZEA

Julio Herreros jaunak (PP): “Con permiso del Sr. Alcalde y de todos mis compañeros de corporación quisiera decir lo siguiente: ¡ya me he cansado de un personaje proetarra que acude a los plenos y en algunos se mete contra mi persona! Lo hace en euskera, ¡una gran lengua, que en boca de este personaje pierde categoría!. En el último pleno me llamó, “hijo de fanquista”. Con ello me demuestra que no tiene lo que tiene que tener, entre otras cosas, educación. A este personaje proetarra, los que somos educados, no le decimos lo que pensamos de él, aunque él, ya sabe lo que es. Termino diciendo que no hay mejor desprecio que no hacer aprecio.”

Alkate jaunak (EAJ): “Hurrengo Kontseilu Batzordean aztertuko dugu, kiroldegiaren ordutegia egun horietan. Erabaki hau hartu zen ikusirik igande arratsaldeetan zenbait jende joaten den, izan ere ez da asko izaten. Bi ordutegi erabili dira, 9,00etatik 13,00etara, nahiko murrizta eta 8,00etatik 14,00etara. Badirudi azken honek gehiengoan asetzen duela. Hala ere, hurrengo batzordean aztertuko dugu, baina pozten naiz jendeak hori eskatzea. Udaletxean ere, adibidez, abuztuan, jende gutxi dagoenean, zerbitzua murriztu egiten da eta hemen ere erabaki hori hartu zen. Datuak jaso ondoren ikusiko dugu nola jokatu.”

AHT

Andoni Antxia jaunak: “Ittola inguruan AHTren obran direla eta isurketak izan dira. Argazkiak daude. Horri buruzko informazioa nahiko nuke.”

KUDEATUZ PROGRAMA

Andoni Antxia jaunak: “talde desberdinak sortzen dira eta jakin nahi nuke talde horiek osatzeko zein irizpide erabiltzen diren.”

Alkate jaunak (EAJ): “Isurketetaz ezer zehatzik ez dakit, baina normala da zikinak jaistea han ateratzen den hondarrekin. Ikuskaritza nahiko zehatza izaten da, bai Foru Aldundiarena eta baita Eusko Jaurlaritzarena ere, ez dut inolako berririk.

Kudeatuz programa. Enpresa jende desberdinari ari da deitzen eta beraiek dira aukera egiten dutenak. Gaiak guk aukeratzen ditugu eta beraiek kudeatzen dute beraiek dituzten irizpideekin.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Emakumezkoen eta gizonezkoen parekotasuna betetzen dute, baina aparkalekuetaz hitz egin behar denean, gehiengoa autoa dutenak izango dira. Auzoetako jendea ere hartuko da, baina batez ere, arazoak dauden tokietako jendea. Gehiengoa izango da Dolare ingurutik Urbietara aldera bitarte. Horrek ez du esan nahi Ezkiaga auzoko batzuek hartuko ez dutenik. Guk udaltzaingoarekin batera irizpide orokorrak ezarri genituen, baina beraiek izango dira azken finean jarriko dituenak.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera hamarrak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.